

ERALDATZEKO, ELKARLANEAN



Sareen sare
Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

ANTOLATZAILEAK

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia
observatorio del
tercer sector de bizkaia



DONOSTIA OTSAILAREN 22
VITORIA MARTXOAREN 1

Lankidetza beti izan da Hirugarren Sektore Sozialaren ezaugarrietako bat. Gizarte-ekimeneko erakunde ia guztiak sortzen dira beren egoitza duten edo lan egiten duten lurralde edo komunitatearekiko lotura estuan, bai eta antolakundean parte hartzen duten edo antolakundearekin lankidetzan ibiltzen diren pertsonekin, taldeekin, erakundeekin... lankidetza-harremanen sarearekin ere.

Alabaina, oinarrizko antolakundeen arteko lankidetza, edota antolakunde horiek sektoreko sareekin duten lankidetza, funtsezko erronketako bat da Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialan (EHSS).

Azken urteotan, nabarmen egin da aurrera EHSSa egituratzeko prozesuan eta esku-hartze zuzeneko antolakundeak (oinarrizko edo lehen mailako antolakundeak) bigarren, hirugarren, laugarren... mailako sareetan antolatzeko orduan. Batez ere, elkarriketa eta eragin politikoko eginkizunak garatu dira.

Hala ere, eta besteren artean, aurrera egin behar da esku-hartze zuzeneko antolakundeen arteko elkarlanean (lankidetza horizontala, adibidez, esku hartzeko, sentsibilizatzeko, baliabideak biltzeko... proiektuetan) eta esku-hartze zuzeneko antolakundeek sareetan duten parte-hartze aktiboan.

Gainera, gaur egun, sektore ondo elikatu eta anitza daukagu. Sektoreak tokiko eremuan duen zabalpenaren indarra orekatu nahi du, erakunde eta beste gizarte-eragile batzuekiko lan koordinatu eta bateratuaren bidez, bai Euskadi mailan oro har, bai lurralde historiko bakoitzean.

«Sektorearen aniztasuna eta pluraltasuna zaintzen lagundu dezakete aliantzek, atomizazioaren mugak gaindituz. Antolakundeetan, beren lana ulertzeko moduaren zati da beste erakunde batzuekiko harremana, eta beren eginkizun sozialekin lotuta dago sarean egiten den lana» (EHSSaren Liburu Zuria, 9. kapitulua, 16. orrialdea).¹

Lankidetzaz, hortaz, identitate-zeinua da, funtsezko zereginak (hala nola eragin sozial eta politikoa) egin ahal izateko premia, EHSSko antolakundeentzat eta sektorearentzat, oro har. Bestalde, lankidetzaz funtsezkoa da esku hartzeko proiektuetatik gizarte-inguruneei (tokikoei eta orokorreari) erantzun ahal izateko, gero eta agerikoagoa baita aurrez aurre dauzkagun egoera eta prozesu sozial gero eta konplexuago eta elkarri lotuagoi erantzun integral eta zeharkakoak proposatzeko beharra.

Elkarlanean arituz gainditu behar diren erronketako batzuk baino ez dira honako hauek: gizarte-errokak areagotu izana; gizarte-eraldaketan aurrera egite aldera, hainbat mailatan (sozialean, politikoan, tokikoan, mundu-mailakoan...) erantzuteko beharra; gure ekimenen eskala handitzeko beharra; egunetik egunera merkantilizatuagoa eta utilitaristagoa den gizarte honen aurrean bestelako aukerak eskainiko dituzten balioak eta kulturak (sozialak eta antolakuntzari dagozkionak) sustatzeko beharra eta gainerako agenteen aurrean eragiteko eta hitz egiteko gaitasuna areagotzeko beharra.

«Era berean, etorkizunari begira, antolakundeek argi daukate beren eragin politiko eta soziala aliantzen bidez areagotu behar dutela. % 89,69k uste du Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak kokaleku sendoa eta kolektiboa edukiko duela gaur egungo ekonomia-krisiaren aurrean, eta % 86,16k uste du sektoreak lidergo-rola hartu behar duela gizarte-eredu berrien eraikuntzan eta politika publiko berrien eraketan».

Esku-hartze zuzeneko antolakunde askoren agendan dago lankidetzaz hobetzea, eta egia bihurtzen ari da, askotariko ekimenen bidez.

Besteak beste, irismen ezberdineko sareetan hartzen dute parte, eta esku hartzeko proiektuetan laguntzen. Bestetik, koordinazioan laguntzen dute, arreta oso eta pertsonalizatua eskaintze aldera, pertsonaren ezaugarri partikularretatik (eremu tradizionalak) harago, edo esku-hartze zuzeneko beste antolakunde batzuek sustatzen dituzten hausnarketa-, eztabaida-, sentsibilizazio- edota salaketa-jardueretan edo -ekintzetan laguntzen edo parte hartzen dute.

Baita sareen agendan ere. Ez da kasualitatea sektorea une garrantzitsu (beharbada, historiko) batean egotea, egituraketa-prozesuei dagokienez, ez eta azken urteotan elkarlanarekin aliantzak eta ekimenak sortu izana ere, Sareen Sarea eratu arte.

Testuinguru horretan, lankidetzaren ikuspegitik abiatuta eta esku-hartze zuzeneko antolakundeen errealitateari erreparatuta, hainbat elementu nabarmendu ditzakegu.

¹ Lantegian, Liburu Zuriaren kapitulu hau landuko dugu, zeinak EHSSaren barruko harremanei begiratzen dien.

EHSSko oinarrizko antolakundeen lankidetzaharremana

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuriaren arabera, EHSSko antolakundeek % 67 harremanetan egoten dira edo elkarlanean aritzen, gehiago edo gutxiago, sektoreko beste antolakunde batzuekin, eta % 55ek hartzen du parte sare batean edo gehiagotan. Beste alde batetik, antolakundeek % 66k diote beste antolakunde batzuen laguntza jasotzen dutela, eta % 60k diote sareen laguntza jasotzen dutela.

Hala ere, elkarren artean lankidetzan ibiltzen diren esku-hartze zuzeneko edo oinarrizko antolakundeek kopurua handitu behar da (horien % 33 ez da lankidetzan aritzen), eta aurrera egin behar da lankidetzaren nolakotasunean, esku hartzeko baterako ekintzak eta proiektuak eginez.

Gauza bera gertatzen da sareetan parte hartzeari dagokionez. Bada, hauek behar dira:

- Parte hartzen duten antolakundeek kopurua handitu behar da (% 55ek ez du egiten, eta eremu batzuek –emakumeen asoziazionismoak, adibidez– barne-mailako egituraketan egin behar dute aurrera, eta, hala nahi badute, baita sektorearekin artikulatzeko orduan ere).
- Sareen eta antolakunde kideen arteko harremanaren kalitatean (bi norabideko informazioa, batzuen eta besteen beharren arteko lotura) aurrera egin behar da, eta sareetan egiten den parte-hartze aktiboa (plangintzetan sareetan parte hartzea sartzea, pertsonen ardurak...) sendotu.

EHSSaren Liburu Zurian jasotzen diren datuen arabera, oinarrizko antolakundeak eginkizun hauetarako jartzen dira harremanetan beren artean edo sareekin: informazioa trukatzeko, beren artean (% 74,36) eta sareekin (% 53,38); aholku emateko, beren artean (% 48,85) eta sareekin (% 37,49); sentsibilizazio-kanpainak egiteko, beren artean (% 48,12) eta sareekin (% 40,11).

Beste alde batetik, sektorearen barruan laguntza handia ematen dietela sentitzen dute oinarrizko antolakundeek. Gainerako erakundeetatik laguntza jasotzen dutela diote antolakundeek % 66,10ek, eta sareetatik laguntza jasotzen dutela diote % 59,59k.

Eremuaren, lurralde historikoaren edo neurriaren inguruko aldagaietan oinarritutako analisia eginez gero, honako hau egiazta daiteke:

- Enplegu eta gizarte-zerbitzuetako eremuetan, gizarte-bazterketan dauden edo gizarte-bazterketan egoteko arriskuan dauden pertsonak edo desgaitasunen bat daukaten pertsonak artatzen dituztenen eremuetan bereziki, antolakunde askok daukate harreman nahikoa edo handia edota lankidetzaharremana sektoreko beste antolakunde batzuekin eta sareekin.

Bestalde, osasun eta gizarte arloko edo zeharkako eremuetan, garapenari laguntzeko nazioarteko eremuetan eta aisialdi-eremuetan, sektoreko beste antolakunde batzuekin (% 47,97 eta % 63,22, hurrenez hurren) eta sareekin (% 30 eta % 56,24) harreman nahikoa edo handia edota lankidetzaharremana daukaten antolakundeek tasa txikiagoa da.

- Bolumen ekonomiko handia kudeatzen duten eta soldatapeko langileen ehuneko handiagoa daukaten antolakundeak aritzen dira beste batzuekin elkarlanean maizago.
- Gipuzkoan, antolakundeen arteko harreman-maila pixka bat txikiagoa da (% 57,12k harreman nahikoa edo handia dauka besteekin, eta EAEko batezbestekoa % 67koa da).
- Gipuzkoako antolakundeak dira sareengandik laguntza txikiena jasotzen dutela diotenak. Hala ere, horien % 48,47k diote laguntza nahikoa edo handia jasotzen dutela, baina datu hori bera % 60koa da Araban eta Bizkaian.

Araban eta Gipuzkoan, antolakundeen ezaugarriek (txikiagoak dira, boluntario gehiago daukate...) eta lurraldearen ezaugarriek (orografiak, biztanleriak lurraldean duen banaketak...) azaltzen dute neurri handian antolakundeen arteko lankidetzatasa handiago hori.

Hori dela-eta, honako hau nahi dugu:

- **Esku-hartzeko antolakundeek elkar ezagutzea eta eremu, neurri... bereko edo ezberdineko beste antolakunde batzuekiko lotura estutzea sustatzea;** batez ere, osasun- eta gizarte-arloko edo zeharkako eremuetan.
- **Erakundeen arteko lankidetzat horizontala bultzatzea,** bai esku-hartzeko mailan, bai kudeaketa-mailan, proiektuak edo esku hartzeko bestelako jarduerak elkarrekin egiteko aukera edota baliabideak (instalazioak eta materialak, langileak...) partekatzeko aukera ere aintzat hartuz.

Antolakundeen arteko lankidetzat sustatzeko beharra

Liburu Zuriaren 9. erronkak hauek biltzen ditu: "esku-hartze zuzeneko antolakundeen arteko lankidetzat sustatzea" eta "sektorearen egiturat aurrerat egitea".

Lehenengo kontuari dagokionez, honako hau azpimarratzen dute lurralde historiko bakoitzeko eztabaida-taldeetan parte hartu duten antolakunde eta sareek:

«Araban, erakundeak elkartzeko, elkar ezagutzeko eta lankidetzat ibiltzeko guneak indartu behar dira, pertsonen artean eta jarduera zehatzen inguruan dauden harremanetatik harago, administrazioarekin hitz egiteko, sentsibilizazio- edo salaketa-ekintzak egiteko, baterako kontratazio-poltsak sortzeko eta abarrerako. Era berean, garrantzitsua da arreta jartzea antolakunde txikien arteko lankidetzat eta hainbat eremutakoak diren edo kolektibo ezberdinekin lan egiten duten erakundeen arteko lankidetzari.

Bizkaian, badirudi sektoreko antolakundeen arteko elkarrezagutza eta harremanak hazi egin direla azken urteotan, askotariko agenteak antolatzen joan diren foro eta topaketa ugariei esker; hala ere, gehiago aurreratu da alderdi batzuetan (beste agenteekiko elkarriketan, adibidez), sareen bidez, beste alderdi batzuetan (oinarrizko antolakundeen arteko lankidetzat, adibidez) baino.

Gipuzkoan, dagoen atomizazio-maila eta antolakundeen ezaugarriak direla-eta, ahalegina bikoiztu behar da boluntarioak bakarrik edo batez ere boluntarioak dauzkaten toki-erakunde txikien arteko aliantzei bide emateko. Adierazi denez, eragitera eta zerbitzuak ematera bideratuta dauden antolakundeen artean harreman txikia dago, eta, Araban bezala, elkarteek hotelak positiboak dira, hesiak hausteari, multzoaren gaineko ikuspegiak edukitzeari edo kasu-mailako esku-hartze integralak sustatzeari begira. Azkenik, oraindik hasiberria den sektore berekoak garelako kontzientzia sustatu behar da.²

Oro har, askotan, oztopo praktikoak (inbertitzeko denbora, nondik hasi ez jakitea...) gailentzen dira lankidetza sustatzeko orduan; beraz, jarraibideak, orientabideak eta erreferentziazko jarduera-onak eskatzen ditugu. Era berean, ezinbestekoa da aintzat hartzea landa-eremuetako antolakundeek nolabaiteko isolamendu fisikoaren ondoriozko zailtasun erantsiak dauzkatela. Sektoreko beste antolakunde batzuekin loturak egiteko elementuak eman behar zaizkie». (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria, 167. orrialdea).

Gainera, EHSSaren Liburu Zuriak ematen dituen datuetatik eta jasotzen dituen erronketatik harago, Behatokiak eta Sareen Sareak Araban nahiz Gipuzkoan egin dituzten topaketetan egiaztatu ahal izan dugu lankidetza dela antolakundeen kezka eta ardura handienetako bat. Behar hauek jaso dira:

- askotariko eremuetako antolakundeak elkartzeko guneak areagotzea (topaketen zeharkakotasuna);
- EHSSkoa izateko sentimendua handitzea, eta, batez ere, identitate partekatu bat definitzea eta identifikatzea (xedeak eta balioak, gizarte- eta garapen-eredua);
- jarrera eta interes komunak babestea (adibidez, antolakunde txikiek eta ertainek diru-laguntzetan jasotzen duten tratua);
- aurrera egitea sektorea lurralde bakoitzean egituratzeko orduan.

Horregatik guztiagatik, lurralde historiko bakoitzaren errealitateari egokitu behar zaizkio lankidetzarako estrategiak, eta hiruretan sustatu behar dira, baina Gipuzkoa eta Araba lehenetsiz.

Sareen Sarearen eta Behatokiaren eginkizuna

² Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialekoa izateko kontzientzia, identitateari dagokionez, ez da kontzeptutik bertatik bat-batean sortzen. Izan ere, antolakundeen arteko topaketen bidez ehuntzen da; egoera eta behar komunak partekatuzetik eta partekatzen dituzten xedeak eta kausak elkarrekin eraikituzetik.

Sareen Sarearen xedeetako bat da Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala antolatzeko lan egitea.

Horrela, bada, gure lehenengo Plan Estrategikoak xede nagusien artean dauka EHSSaren barruan parte hartzeko guneak sortzea eta dinamizatzea eta, aldi berean, EHSSaren errealitatearen gaineko elkarrezagutza partekatua sustatzea etengabeko hausnarketa parte-hartzailearen bidez.

Bestetik, Behatokian urte batzuk daramatzagu, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, Arabako eta Gipuzkoako errealitateetara hurbiltzen, eta ez ekimen orokorrekin bakarrik (esaterako, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria eginez), baizik eta lurralde bakoitzeko antolakundeekin topaketak (jardunaldiak, lantegiak) eginez.

Eta, hain zuzen ere, gune horietako batean sortu zen, bai Araban, bai Gipuzkoan, antolakundeen elkarrezagutza sakontzeko eta esku-hartze zuzeneko antolakundeen arteko lankidetzaren gainean lan egiteko premia.

Proposamen zehatza

Lau orduko lantegi bat (10:00etatik 14:00etara) egitea proposatzen dizuegu:

- **Lurralde historiko bereko baina askotariko eremuetako** (bazterketa, babesgabetasuna, desgaitasuna, adinekoak, emakumeak, gazteak...) **eta tipologietako** (hartzaileek beraiek eratutako antolakundeak edo hirugarrenen alde eratu direnak, neurri ezberdinekoak, tokikoak edo geografia-eremu handiagokoak) **esku-hartze zuzeneko antolakundeei (oinarrizko antolakundeei) zuzenduta dago.**
- Hirugarren Sektore Sozialeko **esku-hartze zuzeneko antolakundeen arteko lankidetzan** (lankidetzaren horizontalean) dago zentratuta; hala ere, antolakunde horiek sareetan duten parte-hartzearen inguruan sor daitezkeen kontuei irekita egongo da.

Oinarrizko antolakundeak elkartzea da oinarrizko xedea, baterako hausnarketa egitea sustatzeko eta, batez ere, baterako ekintzarako proposamenak egin daitezen.

Xede horrekin bat eginez, ahal dela, garrantzitsua da eremu eta tipologia bereko edo ezberdineko antolakundeak egotea, gune aberasgarria sortu eta baliodun proposamenak egin daitezen.

Bada, lantegiaren espazioan:

- **Norberaren esperientziatik eta antolakundeen beharretatik abiatuko gara**, jada badauden lankidetzaren ekimenak baloratuz, sentitzen diren beharrei buruz hausnartuz...
- **Kontuan hartuko ditugu Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuriaren 9. kapituluak horri buruz ematen dizkigun datuak eta proposamenak.**
- Sektoreko lankidetzari buruz **aurretik egin diren teorizazioak aprobetxatuko ditugu** ([Lantegia: Irabazi-asmorik gabeko antolakundeen arteko lankidetzaren](#)), lankidetzaren balioari, tipologiei, zailtasunei eta aukerei buruz **hausnartzeko**.

- Eremu edo tipologia bereko eta askotariko eremu eta tipologietako **esku-hartze zuzeneko antolakundeen arteko lankidetza sustatzeko proposamen praktikoak zehazten saiatuko gara.**